

IDAZTEN HASI DA
Maialen Akizu Bidegain
Urretxu

Axotaren tinta txukunak
paper zimurtuan
erliebe bihurriak
marrazten doazen heinean
garuneko zirriborroak
paper ontzira botatzeaz aspertuta
idazten hasi da

Marrazkiak hitz ikusiz,
hitzak letra bihurtuz,
letrak mugimendu.
Dantzan hasi da.
Atzo irratian entzundako baltsaren erritmoan,
haizeak daraman ballet dantzari-txotxongilo baten
gisan,
inprobisatzen,
pausu bakoitza markatuz,
borobil, goxo, gora eta behera.
Gaizki.
Hankak eta besoak hari desberdinari josirik dau-
dela nabaritzen da.

Ez zaio gustatu.
Tintazko hodeiak dena eraman du bere baitan,
irratian entzundako baltsa,
haizeak zerabilen dantzaria,
inprobisazioa,
dena hodei bilakatu da.
Marrazkiak hitz ikusiz,
hitzak letra bihurtuz,
letrak nota.
Kantuan hasi da.
Aitari aurreko astean kotxean entzundako
Benitoren abestia xuxurlatzen duelarik,
pentagrama huts bakoitza arropa zabaltzeko eseki-
toki dakusa.
Hizki tenorrak,
isilune espaziotsuak,
akorde perifrastikoak,
eskegi ditu,
melodia airean geratu ez dadin.
Aitaren ahotsak
etxeoandreairearen errutinak baino pisu handiagoa
duela ohartu du berekiko.
Soka meheak, ez dira gai izan
hitz potoloak eusteko.
Tintazko hodeiak,
pentagrama
hizki tenorrak
melodia
dena eraman du berriro ere bere baitan.
Marrazkiak hitz ikusiz,
hitzak letra bihurtuz,

letrak argazki.
Egunkarian herenegun ikusi zituen irudietan mur-
gildu da.
Hizki bakoitza
leku berri batera daraman
arte bat da.
Perspektiba onena idatzi,
objektibotik subjektibotasuna bilatu,
begien kliska bakoitzean “klik” bat egin.
Ipuina argazki album bilakatu du.
Ez zaio gustatu.
Albumaren barbarako gaitasun ezak,
ipuin eletsua isiltzea besterik ez du eragin.
Badator, oraingoan amorru handiagoaz,
tintazko hodeia,
egunkariko irudi,
perspektiba,
eta ipuin mutua,
bere baitan zakar eramanez.
Ballet dantzari baten gisan,
Benitoren kantua buruan duela,
leku berri batera daraman atea zeharkatu nahirik,
kalera irten da
garuneko zirriborroak
paper ontzira botatzeaz aspertuta.
Ahantzi gabe, ordea, leihotik begiratu du.
Eguzkia ageri da.
Tintazko hodeiez salbu da.